

## MITXELENA LEXIKOLOGOA

*Juan San Martin*

Ez da erraz jakitekoa Koldo Mitxelena zena noiz hasi zen euskal gaietan. 1953an bere lehen liburua argitaratzean, erudizio harrigarria erakutsi zigun, jakintzaren heldutasunean irakurketa eta gogoeta luzeen ondotik iritsi zen gizonak.

Gazte eraman zuen gudu zital batek luzarako presondegira eta egotaldi hartako gogoetan aurkitzen dugu bere herriarekiko jarrera: «Neronen zoria zen, neure herriarena». Eta hil arteraino etengabeko kemenez aritu zen euskaldungoan. Pertsonalki mailarik gorenak hartu ondoren ere bere herriari nortasuna ematen zion hizkuntzaren zoriak kezkatzen zuen eta honi oinarrizko zitzaionez arduratzen. 1967an «Thesaurus Praeromanicus, II» artikuluan, J. Hubschmid-en lanaren aburuz idatzian, euskal hiztegiaren bilketa eta ikerketaren premia larria agertu zuen, esanaz: «El vocabulario vasco no está debidamente recogido, la historia de las palabras está en buena parte por hacer y, sobre todo, lo que aparece recogido no ha sido siempre debidamente comprobado».

«Thesaurus» horrez gainera beste urratsik ere emango zuen lexikoa zentzuz aztertze bideak barna, lekukorik aski dugu «Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)» delako iker lana eta «Vocabulario vasco (ensayo de una interpretación de la lengua vasca)» Mons. Grierari «euskal hiztegi etimologiko» hortaz hain umoretsu eskaini zionean.

*Lengua e historia* (1985) liburuan doazen artikuluok ematen digute gure lexikologo gorengoaren aburuzko maila. Hel-dutasunera iritsitako hizkuntzalariaren lan hautatuak biltzen dira aipatzen dugun liburu horretan eta *Palabras y textos* (1987) deritzarenean. Gai horietan jakitun ez denarentzat ere argi dago zenbait artikulu irakurtzeaz galduberri dugunaren balioa. Izan ere, lexikologo berezi baten lanak dira «Egunak eta egun izenak», «Nombre y verbo en la etimología» deitzen direnak edo «El elemento latino y románico en la lengua vasca» delako azterketa eta analisisa egiten duena. Horiek eta gainerakoek erakusten digute, adibidez, erudizio sakon bezain zabaletik hitzez hitz lekukotuz, beti oinarri sendozko semantikas, hitzen historia egiten zekiena zela eta ez erdi ametsezko prehistoria.

Bi liburuok, izatez, linguistikaren teoriak, arazo eta helburuzko metodologiak eskaintzen dituzte, erromarren aurreko hizkuntz sustratoetatik hasi eta gure egunokarte.

Lan horietatik *Orotariko Euskal Hiztegi*-ra arte doan bide luzean eman zuen bizitza intelektualaren adimenik hobereana, *Apellidos vascos* (1953) lehen liburu hartan bertan erakutsi zuen bibliografiako erudizioa eta lehenagokoen eriztietatik zer nola aukeratzen jakitea. Liburu horren hitzaurrean erakusten digu zein goiz ziharduen Mitxelenak euskal hizkuntzaren oinarriak zientifikoki jartzen. Euskal Herrian Unibertsitatea sortu baino mende laurden lehenago ordea, N. Landuchio-ren *Dictionarium linguae Cantabricae* (1958), M. Agud Querol-en laguntzaz argitaratuari egin zion hitzaurre hura dugu beste ageri eder bat lexikografo on baten bidea erakusten duena. Hor ikus ditzakegu kriterio horiek aldeztatik aurretik bideraturik lexikologoari laguntza hobea eman diezaiokeela lexikografoak.

Beste zenbait iker liburutan agertu zituen bertako edukinean aztertzen zituen hitz zerrendak. Liburuotarik garrantzitsuena hitzen fonetikaz giltzak emango zituena zen *Fonética Histórica Vasca* (1961), geroztik ere, ahalegin berean jarraituz, bigarren argitalpena gehigarri emango zuena hamaisei urteren ondotik. Oinarri oinarrizko tesia izango genuen

ahozkeraz zein idazkeraz hizkuntzaren eboluziozko aldakuntza legeak ezagutzeko. Berari esker, abantaila handia ekarriko zuen linguistikaren ikerketara. Behar beharrezko tesia genuen etimologietarako eta jatorrietara hurbiltzeko edo nahiz hizkuntza berreraikitzeko beharrezko diren bideak hartzeko. Lexikologiarako, liburu horrek eraskintzat dakarren «Indice de palabras» oso kontutan hartzekoa da. Hor ere, ondo hautaturiko bibliografiaren erabilera nabarmena da. Hor bai euskalari eta euskaltzaleei, lanerako metodoa ez ezik, tresna egokia eskaini ziela. Aurrerantzean nahitaezkoa bihurtu da euskararen ikerketarako Mitxelena zenaren lanak ezagutu beharra. Herbestekoek aitortutako ospe hori ezingo diogu ukatu etxeok.

Fonetika legeak aztertzeaz denboraren hitzen aldakuntza zertan zen erakutsi bazigun, hitz horien historia eta hastapen agiriak emango zituen *Textos arcaicos vascos* (1964) liburuan, azken orrietan «Glosario» deritzana lagungarri zela. Lagungarri izan ditzazken aintzinako euskararen teoria eta neurri batean euskalkietan sakabanatzeaz, *Sobre el pasado de la lengua vasca* (1964) deritzan liburuan aurkituko dugu Mitxelenaren teoria.

Hogetahamar urte baino gehiago izango dira Euskaltzaindiak Mitxelenari Azkueren hiztegia berritzea agindu ziola. Baita berehala fitxagintzan hasi ere, hiztegi handi haretan falta zirenak eta bestelako esanahiez ezagutzen zirenez gehituz. Era berean, hiztegia orokorki gaurkotzeko azterketak egin zituen. Horren lekuko bat dugu *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* (1970). Hasiera batean zerbait apalagoa eta mugatuagoa zen haren asmoa, baina ezarian eta igarri gabe uste ez bezalako tamaina eta luze-zabala hartuz joan zen. Gaur egun behar den kritikaz eta jakintzaz egitea ezinbestekoa bihurtu zitzaion, euskaraz erabili diren hitz guttien lekukotasuna eskainiko bazuen. Horrek zekarren Mitxelenaren obra izatera.

Bazen burutu ezinezko lana leporatu zuela uste zuenik ere, Salamanca-ko egotaldian Ibon Sarasola lagun, ordenagai-luen beharra ikusi zuten. Baina bistakoa zen euskararentzat

egun hobeak zetoze, irakaskuntzan eta ikerketan bederen: Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera etorri zen eta politikaz ere neurri batetan nolabaiteko eskubideak lortu genituen. Hala ere, lanik aski izan zuten Euskaltzaindiak eta Mitxelenak hain beharrezko genuen orotariko hiztegia egiteko bidean jartzeko, ordenagailuz eta langilez. Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek 1984ko maiatzean onartu zuten horretarako diru laguntza ematea, 1987an etorri zen Nafarroako Gobernuak. Babes horiei eta Fermin Larrea eta Ibon Sarasolaren plangintzari esker, Koldo Mitxelena asmoetako hiztegi gintza martxan jarri zen. Horren berri emateko Ibon zen ni baino pertsona aukerakoagoa, baina maizegi gertatu zaidan bezala, hemen ari naiz bestek bete beharrezkoan. Une honetan, euskararen alde baino gehiago gizon berezi baten ohoretan.

Langintza horretarako, Mitxelenak, kriterioak eta mugak jarri zituen eta bere zuzendaritzapean bildurik utzi dituen materiale guztia, *Orotariko Euskal Hiztegia-Diccionario General Vasco*-ren lehen tomoa inprimategian zela hil zen. Hiztegi horren kopurua honetan datza: hitzen sarrerak 120.000. Autoritate gisa aipatzen diren egileak 785. Hiztegian ezarriak ageri diren adierak, berriz, 1,5 miloi. *Corpus* hori ordenagailuetan sartua da eta hemendik aurrerako lana argitaratzeko hautatze eta zuzenketazkoa da.

Hara hemen herioak eroan zuenean *Orotariko Euskal Hiztegi* horretarako gertatzen ziharduena hitzaurrearen zirriborrotik jasoa, euskaraz eta erdaraz:

«Hiztegi hau sortzea erabaki zenez gero —eta baita lehenago ere, egia esan behar bada—, taxutua zegoen bere izaera eta egoera. Gogoz eta ustez, ahalik eta osoena nahi zen egin, bai aldiz eta bai alde. Ez genuen deus hartu gabe utzi nahi, ez zaharrik eta ez berrik. Ezta ere ez hangorik eta ez hemengorik.

Mugak ditu, eta mugak meharrak, hiztegiarrien ezaguerak, gaitasunak ez ezik. Ezinezkoa litzateke, beraz, batzuek bezain ongi besteak azaltzea. Giza hutsune horiez kanpo, ordea, saioak ez zuten inoizko eta

inoizko hesirik on hartuko. Asmoak noraino bete diren irakurleak esan beharko du orain, lana eskuzkatuz.

Mendeei bagagozkie, honelako zerbait aurrera daiten, lanari hurbiltzen zaiolakoan. Antzinateatik hasi gara, Akitaniatik batez ere, eta Erdiarokoak ez ditugu baztertu, jakinaren gainean ez bederen. Geroztikakoak, gurean inprenta lanean hasiz geroztikoak ahaleginean bildu ditugu: XVI. goak, bestela esan, XVII. goak eta guti gora-behera, 1745 artekoak, hots, Larramendiren hiztegi hirukoitza agertu artekoak. Hutsarteak, zer esanik ez, gero eta ugariago dira gure egunotara inguratu ahala. Gauza jakina da ez dela hiztegi gilerik, lana luzea eta orapilatua zenean bederen, hutsik eta makurrik gabe bere lana bete duenik. Eta salbuespenen artean, inoiz salbuespenik gerta baledi, ez dira hiztegi honen egileak aurkituko.

Zer esan, eta neurri zabal batean zer esaten den, azaldu nahi litzateke, bada, hemen, eta ez zer esan behar litzatekeen. Irakurleari eman nahi zaizkio aukera egiteko behar lituzkeen lanabesak, hautaketan hasi behar badu».

«El *Diccionario General Vasco* trata de recoger y sistematizar el patrimonio léxico vasco de todas las épocas y dialectos. Se trata, por lo tanto, de una obra general y descriptiva, no de un diccionario normativo. Se basa en un material clasificado mecánicamente, que comprende:

a) Los testimonios clave de las distintas épocas en que la lengua vasca aparece atestiguada de alguna manera, desde la documentación antigua (inscripciones aquitanas y vascónicas) hasta una fecha que ahora se puede fijar, provisionalmente, en 1970. Existen, evidentemente, textos posteriores, pero no han sido recogidos sistemáticamente.

b) Los textos vascos propiamente dichos desde la documentación medieval (*Glosas Emilianenses*, *Fuero General de Navarra*, etc.) hasta la fecha citada.

Para ello se ha procedido a una clasificación de autores y textos, en la que se ha buscado —como puede comprobarse en «Relación de textos despojados exhaustivamente»— un equilibrio que permite recoger testimonios de las distintas variedades de la lengua y de los distintos registros, prosa y verso, desde lo más popular hasta lo más elaborado. En su totalidad, representan una imagen completa, aunque no exhaustiva, del léxico vasco a través de la geografía y la historia.

c) Aunque se trata de un elemento adicional en el texto destinado a la publicación, se ha tenido siempre muy presente la onomástica personal y local, fundamental para bastantes siglos.

d) El *Diccionario General Vasco* no es normativo, pero incluye los datos geográficos e históricos necesarios, junto con una valoración especial de los autores que fundamentan las distintas tradiciones literarias, para que el lector posea los fundamentos que le permitan elegir en los muchos casos dudosos.

e) Tampoco es un diccionario etimológico. Añade, sin embargo, acotaciones sobre el origen de algunas palabras, cuando se trata de cuestiones muy disputadas o procedencias cuyos eslabones se acierta a fundamentar».

Hiztegiaren ongietorritzko agurrean, Fr. Luis Villasante euskaltzainburuarenak dira lankideei eskainitako hitz hauek: «Benetan opari aparta eta berdinek gabea eskaintzen diozue Euskal Herri honi, bere mintzaira zaharra salbatu nahian dabilen egokiera itxaropentsu honetan». Zeren hau izango bai da gure hizkuntzaz inoiz egin den obrarik handiena.

«Neronen zoria zen, neure herriarena» euskaldun izatearen nortasunetik minez agertu zuen. Behar bada beste inor baino hobeto jabetu zen hizkuntzaren balioaz, gure nortasunik garrantzitsuenaz. Ezin dezakegu ukatu lehendik ere bazi-rela euskaltzale kezkatia, bereziki XVI. mendea geroztik idatziz nabari zaigu. Baita ere apologistarik adina euskalfobo.

Baina jakintzak etsaigoa baretzen duenez, Mitxelenaren lanak itzala eta errespetua ekarri ziguten mundu guziaren aurrean.

Gure etxetik ere bada hizkuntza gutietsi duenik. Oraindik orain ere Salamancan erretore izanaren eritziak gogoraziko dizkigute. Euskara «arma arrojadiza»tzat erabiltzen dugula diotenek, maiz gogoratuko digute Unamunok esana, baina gizon berak beste batean, «Cada pueblo ha ido asentando en su lenguaje su concepción abstracta del mundo y de la vida, y en la extensión y comprensión que da a cada vocablo va implícita su filosofía» (Unamuno, *Obras completas*, t. III, p. 765) aitortu zuenik oroitu gabe. Esaldi horrek edozein herri eta edozein hizkuntzarentzat ez ote du balio? Ba, urrutiago joango zen Unamuno bere beste honako hau idaztean: «La lengua, he de repetirlo una vez más, es la sangre del espíritu», edo beste esaldi haretan: «Adueñarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales» (*Obras completas*, t. III, p. 1.081; t. VI, p. 957). Hizkuntzaren sendagaiak hain sendoak izanik, nola daiteke guk geurea baztertzea? Kulturaren izenean horrela mintzo direnak, beltza da benetan, inguruko bi hizkuntza hertsagarrietatik ihardun beharra. Ala, jakitunik bi estaduetakoak baizik ez ote dituzte irakurri?

Gure arazoetatik oso aparte ibili zen jakitun baten eritzia ekartzea aski dut kultura gehiena zerk bereizten duen jakiteko. Adibidetzat Thadée Zielinski poloniarra aipatzea aski dut, gure mende honetan aintzinako kulturaren azterketan goi mailako jakitun bezala nabarmendu zena, hizkuntzarik anitz zekizkien eta, ondo menderatu ere, ber berak idatzi zituen liburuak errusieraz, polakoz, alemanez, ingelesez eta latinez; hizkuntza klasikoan irakasle zen San Petersburgon eta Barsobian (Warszawa), eta bere liburuetarik aipatuena izan zen *La culture du monde antique*-ren (1930) sarreran, gizarte zientzien alderditik kulturaren alorrak zertan oinarritzen ziren, oraindik lehenera Europako herrien nortasunari begira, hiru sail edo kategorietan agertuko zituen: lehenbizikoa hizkuntza, bigarrena erlijioa eta hirugarrena ohiturak.

Horrela ikusirik ez da batere harritzekoa Koldok hizkun-

tza beraren ikerketari bere bizitza osoa eskaintzea, eskaini ere hemen bertan gehienek baztertzen zuten garai haretan eta 1967an Hubschmid-en lanak aipatzean inork baino lasaitasun handiagoz goraiatuko zuen bere aburuak agertzean: «Hubschmid empiezo por sentar la importancia excepcional de la lengua vasca para este género de investigación, ya que se trata de la única lengua preindoeuropea aún viva de la Europa antigua...» (*Lengua e historia*, 322 orr.).

Mundu zibilizaturako horrek egiten du altxorra bezala zaindu edo begiratu beharra, era berean erabilerazko bideak idekiago egin beharra. Hori zen Koldo zenaren gogo eta bere lanen helburua. Lan horien artean, edonorri edonoiz falta egingo diona, besteak beste, lexikoaz garatu duena da, noski, zeren *Orotariko Euskal Hiztegia* denez gure euskararen historian egin den lanik handiena eta sakonena.